

**DICCIONARI DE LA LLENGUA CATALANAREN  
AURKEZPENA VALENCIAKO  
UNIBERTSITATEAREN PARANINFOAN**

1995-10-28

Jose Luis Lizundia,  
idazkariorde-kudeatzailea

Paraninfoa bete-beterik. Lehendabizi hitza hartzen du Joan Francesc Mira jaunak, hots, Edicions 3 i 4, Edicions 62, Editorial Moll eta Enciclopedia Catalana-ren izenean. Bertan bildurako agintari, akademiko eta erakundeen ordezkariak eta bildutako guztiak agurtuz. Jarraian, Albert Hauf Valenciako Unibertsitateko irakasleak hitz egiten du *Diplomatarium Regni Valentiae* liburukiaren aurkezpena eginaz, ondoren, beronen paratzaile izan den Rober I. Burns Los Angeleseko Unibertsitateko historiagileak hitz egiten duelarik.

Hurrengo sailean Joan Francesc Mirak egiten du *Diccionari de la Llengua Catalanaren* aurkezpenaren lehen mintzaldia, gero, Aina Moll, Balear irlotako filologa eta Hizkuntza Normalizazioko ardurakdunak, Antoni Maria Badia i Margarit Institut d'Estudis Catalaneko sail-lehendakariohiak eta Andoni Ferrandok Valenciako Unibertsitateko irakasleak eta Institut Interuniversitari de Filologiako presidentearik.

Hirugarren partean Joao Maura Instituto Camones-eko ordezkariak, Mario Sala Errumanieraren Akademiaren ordezkariak, Arcadio Lopez Casanovas Real Academia Galegaren ordezkariak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Segidan, Emili Giralt eta Manuel Castelletek hitz egiten dute, lehendabizikoa, Institut d'Estudis Catalansen orain arteko lehendakaria eta bigarrena, oraingo lehendakariak hitz egiten dute. Ekin-tzaren amaiera Pedro Ruiz Valenciako Unibertsitateko errektoreak ematen du.

Esan behar da ekintza hau oso interesgarria izan dela alderdi askotatik, bereziki, kontuan izanik, Valencian azken bolada honetan, katalanak jasaten ari den erasoak kontuan izanik, agintari, politiko zenbaitegandik, batez ere herrialdeko Gorteen lehendakari den Lizondogandik. Bestalde, Euskaltzaindiaren presentzia interesgarria izan zen Mila jaunak aipatu genituelarik, bai Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta ni neu, idazkariorde bezala. Euskaltzainburuaren hitzaldi laburra, euskaraz lehendabizi, eta gero gaztelaniaz, txalotugarrienetarikoa izan zela azpimarratu behar dut.